



## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2018ko martxoaren 15ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Servicio de recogida de residuos:** Gai hauek aztertu dira: goiko kargako paper eta kartoi edukiontzi guztiak aldatzen amaitzea, alboetako 36 eta atzeko 10; gune txiki garbietako hondakinen kudeaketa; papera eta kartoia atez ate biltzea dendetan; beste hondakin batzuen kudeaketa; ezarritako ordutegitik kanpora utzitako bolumen handiko hondakinetarako azalpen-eranskailuak; Udaleko serigrafia Etxebarriko biltzailean; lurpeko ontzi eta beira edukiontzien aurrezaintzako mantentzearen aurrekontua; Garbikerren bilera; albisteak TSJ helegitean; BFAaren hitzarmenak Arakaldo, Arrankudiaga, Urduña eta Orozkoko Udalekin hondakinen tratamendurako; barne araudia eta udal hondakinen ordenantzari buruzko bilera.
- **Edukiontzien hornidura lehiaketa:** Bilketa zerbitzuak epe laburrera antzemandako beharren berri eman da, udalerrika.
- **Zilarrezko, Urrezko eta Platinozko Erratzen Lehiaketa:** Hautagaitza ez aurkeztea erabaki da.
- **URArekin elkarlanean aritzeko urteko plangintza: jarduteko proposamenak:** Mantentze zerbitzuarekin izandako bileraren berri eman da, 2017an buruturiko jarduketak eta 2018rako aurreikusitakoak jakinarazteko. Posta elektronikoz bidaliko da. Maiatzaren 17ko Batzordearen bileran, lankidetzaren protokoloan aurreikusitako jarraipena egingo da.
- **Hondakinak industrialdeetan kudeatzeko proiektua:** Laguntza teknikorako kontratuaren baldintza agiriaren zirriborroa igorriko da ostegunean bertan, Udalek ekarpenak, zuzenketak edo baliozkotzeak egin ditzaten. Hilaren 19ra arteko epea dago (astelehena), eta lehiaketa hilaren 20an (asteartea) argitaratuko da.
- **Olio kanpaina:** 2017ko Hondakinen PIMA diru-laguntzaren barruko komunikazio kanpainaren berri eman da. Hauexek biltzen ditu, dagoeneko erosi diren edukiontziez gain: gutxienez, edukiontzien binilazioa; inbutuak etxeetara banatzea informazio-txartel batekin batera, HAZaren edo bestelako udal ekipamenduen bitartez: horietara joko dute herritarrek inbutuak jasotzeko.
- **WEB berria:** Berritze- eta egokitze-lanen berri eman da.
- **Forma juridikoa berrikustea:** Egoeraren eta aholkularitza kontratazioaren aurreikuspenen berri eman da eta gutxi gorabeherako egutegia jakinarazi da.
- **Laguntza publikoak:** Hiru deialdiren berri eman da: PIMA residuos 2018, Fundación Biodiversidad-en Programa Emplea Verde; Paisaiaren ekintza planak.
- **Argibideak:** Ingurumeneko tokiko fiskalitaterako tresnen azterlan konparatua; energia-egiaztapenerako IVAPen ikastaroa; App HIRIX eskaintza; Totemak.
- **Hurrengo bilerak:** Batzordea, apirilaren 19, osteguna, 9:00etatik a 11:00etara; Barne araudia eta udal hondakinen ordenantzari buruzko bilera, apirilaren 19, osteguna, 11:00etatik a 12:30etara; S.L.-ren Junta Orokorra, apirilaren 26, osteguna, 9:00etatik a 11:00etara.